

## MIRAMAR PARTZUERGOAREN EGOERA DELA ETA MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Miramar Partzuergoaren egoera dela-eta MOZIO hau aurkezten du, Udaltzaren Osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2017ko azaroaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

1985eko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak eta Udalak Miramar Partzuergoa sortu zuten, eta urte bereko urrian Foru Aldundiak bertan parte hartzeko erabakia hartu zuen. Beraz, Miramar Jauregia kudeatu ahal izateko, hiru instituzioen arteko elkarlana sustatu zen. Orain jakin dugu Eusko Jaurlaritzak - beti Kultura sailari atxikia egon da-, partzuergoa utzi nahi duela. Kezka eta atsekabea sortarazi digu, etorkizuna kolokan jar dezakeelako, garrantzitsua da-eta proiektu berriak landu ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea.

Batzordean Eneko Goia alkateak Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergoa utzi nahi duela baieztatu zuen. Horren aurrean gure haserrea erakutsi genuen, eta alkateari esan genion Udalak tresnak dituela hori gerta ez dadin.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio eskura dituen baliabide guztiak erabil ditzala, Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergotik alde egin ez dezan.

Donostian 2017ko azaroaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia